


INFLAZIOA

Urte amaierako moteltzearen ondoren, %1,0an amaitu da 2018ko KPIa

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumoko prezioek jaitsiera esanguratsua izan zuten EAEn iazko amaieran, erregaien merkatetik eratorri zena. Hain zuzen ere, azken bi hilekoetan, KPI indizea puntu bat baino gehiago murriztu zen, 2018ko abenduan %1,0an kokatu arte, urteko zatirik handienean ibili zen %2,0aren ingurutik urrun. Hori dela eta, Euroguneko inflaziotik aldendu zen, azken hori abenduan %1,6an baitzegoen.

KPIaren banaketa Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko abendua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,1	0,9	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	0,9	-0,1	0,0
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	-0,1	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,7	1,5	1,5	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	6,5	4,6	2,1	0,4
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	2,1	0,2
- Energia (%10,6)	8,2	5,9	2,1	0,2


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Kontsumoko prezioek izan duten apaltzearen erantzule nagusia petrolioaren upelaren salneurria da, irailaren erdialdean 85 dolarren langa gainditu baitzuen, baina urte amaieran 50 dolarren inguruan saltzen zen, nahiz eta 2019ko hasieran 60 dolarren gainera dagoen. Abenduko merkatzearen ondorioz, garraioak eta etxebizitzak ekarpen handiena egin zioten KPIaren gehikuntza galgatzeko prozesuari, erregaien eta berogailuetarako gasolioaren jaitsierarengatik. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren jaitsiera txikiagoa izan zen, talde horretako oinarrizko zerbitzu batzuek, hala nola argindarra, telefoniako zerbitzuak eta alokairua, tasa altuetan jarraitzen dutelako. Orobat, ostalaritzari lotutako taldeak ere bere igoera leundu zuen, alojamenduko zerbitzuen prezioak jaitsi zirelako. Aitzitik, aisialdia eta kultura biltzen dituen taldeak igoera handiena jaso zuen aurreko hilekoko datuaren aldean, turismo paketeak garestitu zirelako. Hala ere, talde horrek balio negatibotan jarraitzen du.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak

	Euskadi abendua	Espainia abendua	Euskadi urteko batez bestea	Espainia urteko batez bestea
INDIZE OROKORRA	1,0	1,2	1,6	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,6	1,3	1,5	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,2	1,4	2,2	1,9
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	1,1	0,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,8	2,5	2,6	2,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,5	0,3	0,3	0,1
Medikuntza	0,3	0,9	0,2	0,3
Garraioa	0,1	0,2	3,4	3,6
Komunikazioak	2,4	2,3	2,4	2,2
Aisia eta kultura	-0,3	-0,1	-0,4	-0,2
Hezkuntza	0,8	1,0	1,0	0,8
Jatetxeak eta hotelak	1,6	1,8	1,9	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,9	1,1	0,7	0,9

Iturria: INE.